



Ajangizko Udala



AJANGIZKO UDALAK 2014KO AZAROAREN 27AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua jauna

Zinegotziak:

*Beñat Onaindia Goñi jauna
Aiora Berrojalbiz Olaeta andrea
Ismael Oar Arteta Undabeitia jauna
Jesus M^a Ajuria Odriozola jauna*

Bitarteko Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2014ko azaroaren 27an arratsaldeko 18:30etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-

2014ko urriaren 16an ospatutako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONESPENA, BEHAR BADA.-

- **Urriaren 13ko 2014/116 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Udaletxerako musika equipo berriaren horniketa.
- **Urriaren 17ko 2014/117 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ondare erantzunkizuna zehazteko espedientearen hasiera.
- **Urriaren 17ko 2014/118 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Jaunaren Igokunde Elizari elizako beiratea aldatzeko aldamiok jartzeko baimena.
- **Urriaren 17ko 2014/119 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko herri bideak erabiltzeagatik jarritako bermearen itzulketa.
- **Urriaren 21eko 2014/120 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 4. poligonoko 264 lursailean eraikitako udal baimenik gabeko bi txabolen hirigintza egoera legeztatzeko zehaztapidetza administratiboa bukatutzat ematea eta artxibatzea.
- **Urriaren 21eko 2014/121 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 4. Poligonoko 266 lursailan eraikitako udal baimenik gabeko txabolaren hirigintza egoera legeztatzeko zehaztapidetza administratiboa bukatutzat ematea eta artxibatzea.



Ajangizko Udala



- **Urriaren 23ko 2014/122 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bulegorako altxarien horniketa.
- **Urriaren 29ko 2014/123 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kiroldegirako diru laguntza.
- **Urriaren 29ko 2014/124 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BI-4784-CH matrikuladun ibilgailuari 2015tik aurrera zergaren salbuespena onartzea, ibilgailu historikoa izateagatik.
- **Urriaren 29ko 2014/125 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2014ko ohiko etxebizitzaren ondasun higiezinaren gaineko zergaren familia ugarietzako laguntza.
- **Urriaren 29ko 2014/126 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko emakume taldeari diru laguntza.
- **Urriaren 30eko 2014/127 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko landalurreko katastroko 2. Poligonoko 379 lursailan baimenik gabe egindako lanak legezatzeko agindua.
- **Urriaren 31ko 2014/128 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko landalurreko katastroko 3. Poligonoko 397 lursailan eraikitako negutegiak legezatzeko agindua.
- **Urriaren 31ko 2014/129 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko 6. poligonoko 13, 14, 15 eta 16 partzeletatik egurra atreatzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen baldintzatua.
- **Azaroaren 10eko 2014/130 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Sutearo EPSVri 2015ko otsailaren 21ean, eguerdiko 12 :30etatik aurrera Kultur Etxeko areto nagusia erabiltzeko baimena.
- **Azaroaren 10eko 2014/131 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendatako 1. Poligonoko 299 partzeletatik egurra atreatzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen baldintzatua.
- **Azaroaren 14ko 2014/132 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak eskatutakoaren arabera, Ajangizko Udaleko 2014ko aurrekontuen onarpen espedientearen bidaltzea.
- **Azaroaren 14ko 2014/133 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ondare erantzunkizun onarpena.
- **Azaroaren 19ko 2014/134 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BI-5976-L matrikuladun ibilgailuari 2015tik aurrera zergaren salbuespena onartzea ibilgailu historikoa izateagatik.

3.- JOSEBA LAUZIRICA MUGARZA JAUNA, BILDU TALDETIK AJANGIZKO ZINEGOTZI MODURA ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udala Osoak, 2014ko urriaren 16an ospatutako batzarrean, BILDU taldeko

3.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL NOMBRAMIENTO DE JOSEBA LAUZIRICA MUGARZA COMO CONCEJAL DEL GRUPO BILDU DEL AYUNTAMIENTO DE AJANGIZ .-

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 16 de octubre de 2014, aceptó la



Ajangizko Udala



Beñat Madariaga Aurrekoetxea jaunaren dimisioa onartu zuen.

5/1985 Hauteskunde Lege Organikoaren 182.1 artikulua arautzen duenaren arabera, zinegotzi batek dimisioa aurkezten duenean, bere esertokia lista bereko hurrengo hautagaiak edo ordezkioak beteko du, zerrendan agertzen den ordena mantenduz.

2011ko udal hauteskundetarako espedientearen arabera, BILDU-EUSKO ALKARTASUNA (EA) / ALTERNATIBA ERAIKITZEN (BILDU) taldeko hurrengo hautagaia Naia Odriozola Goikolea andrea da. Odriozola andreak 2014ko urriaren 9an aurkeztu zuen udaletxean postuari uko egitea (484 sarrea zbkia.).

Espediente berak JOSEBA LAUZIRIKA MUGARZA jauna aurkezten du hurrengo ordezkio modura (N.A.N. 14.723.385 G).

2014ko azaroaren 3an, Hauteskunde Batzordeak Joseba Lauzirika Mugarza jaunaren izeneko kredentziala aurkeztu duela kontutan hartuta.

Hau guztia kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez onartzen du:

LEHENENGOA.- Joseba Lauzirika Mugarza jauna BILDU taldeko zinegotzi jaunak aurkeztutako zinegotzi kredentzialaren arabera, zinegotzi modura onartzea eta karguaren onespena egin dezala eskatzea.

Ondoren izendatua izan denak, indarrean dagoen legediarekin bat bere kargua hartzen du eta Udalbatzaren kide bezala bere tokia hartzen du.

Alkatetzak Gizarte Ekintza arloko arduradun izateko egin dion eskaintza onartu du.

Halaber, Alkatetzak Beñat Madariaga jaunaren karguen ordezkioak izandatzeko,

dimisión de D. Beñat Madariaga Aurrekoetxea del grupo BILDU.

Considerando lo dispuesto en el artículo 182 párrafo primero de la Ley Orgánica 5/1985 de Régimen Electoral General, por el que en caso de renuncia de un concejal, el escaño se atribuye al candidato, o en su caso, al suplente de la misma lista a quien corresponda, atendiendo a su orden de colocación.

En virtud del expediente municipal de las elecciones municipales de 2011, la siguiente candidata en la lista de BILDU-EUSKO ALKARTASUNA (EA) / ALTERNATIBA ERAIKITZEN (BILDU) es Dña. Naia Odriozola Goikolea, que presentó su renuncia con fecha 9 de octubre de 2014 (Reg. Entrada nº484).

El mismo expediente contempla a D. JOSEBA LAUZIRICA MUGARZA como suplente (D.N.I. nº 14.723.385 G).

Atendiendo a que con fecha 3 de noviembre de 2014 la Junta Electoral remitió la credencial correspondiente a nombre de D. Joseba Lauzirika Mugarza.

Atendiendo a todo lo expuesto, el Pleno del Ayuntamiento por unanimidad acuerda:

PRIMERO.- Aceptar a D. Joseba Lauzirika Mugarza como concejal del Ayuntamiento de Ajangiz, conforme a la credencial presentada y requerirle para que proceda a la toma de posesión del cargo.

Acto seguido el concejal nombrado toma posesión del cargo al amparo de la legislación vigente, pasando a ocupar su puesto como miembro de la Corporación.

El Sr. Lauzirika acepta la oferta realizada por el Alcalde para su designación como responsable de bienestar social.

Asimismo, el Alcalde propone la designación de los siguientes miembros para



Ajangizko Udala



proposamen hau egiten du:

- Behargintza:
Titularra: Aiora Berrojalbiz Olaeta
Andrea
Ordezkoa: Beñat Onaindia Goño
jauna
- Busturialdeko Uren Partzuergoa:
Titularra: Mikel Ander Zubizarreta
Gonzalez-Rua jauna
Ordezkoa: Beñat Onaindia Goñi
jauna.

Proposamena aho batez onartu dute bertaraturako zinegotziek.

BIGARREN.- Ebazpen honen barri, Hauteskunde Batzordeari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanetarako Sailari ematea, informazio ondorioetarako.

HIRUGARREN.- Azaldutako akordioa udaletxeko iragarki taulan jendaurrean izango da interesdunen jakinerako.

4.- 2015 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALEN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkateak azaltzen du, 2015erako Udal Ordenantza Fiskalak onartu behar direla eta, gaur eguneko ekonomia egoera ikusita eta azken urteetan izan den igoera kontutan hartuta, proposamen orokorra zerga eta tasak bere baitan ustea dela, ondoren azaltzen diren berezitasun eta salbuespenekin.

Alkateak komentatzen duenaren arabera, Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasa eta prezio publikoen ordenantza arautzailearen 5. Epigrafearen aldaketa baino ez du jasotzen proposamenak, udal hilerri eta hileta zerbitzuei dagokiena. Aldaketa hilerriko arduradunaren aztertu ondoren proposatu da, zerbitzuak suposatzen duen kostua kontutan hartuta.

ocupar los puestos que hasta ahora ocupaba D. Beñat Madariaga:

- Behargintza:
Titular: Dña. Aiora Berrojalbiz Olaeta
Suplente: D. Beñat Onaindia Goñi
- Consorcio de Aguas de Busturialdea:
Titular: D. Mikel Ander Zubizarreta
Gonzalez-Rua
Suplente: D. Beñat Onaindia Goñi

La propuesta es aprobada por unanimidad de los ediles presentes.

SEGUNDO.- Dar cuenta del presente acuerdo a la Junta Electoral Central y a la Diputación Foral de Bizkaia, Departamento de Relaciones Municipales, a efectos de información.

TERCERO.- Exponer el presente acuerdo en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento para su conocimiento y efectos oportunos.


4.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS ORDENANZAS FISCALES MUNICIPALES PARA EL 2015.-

El Alcalde Presidente, ante la necesidad de aprobar las ordenanzas fiscales municipales para el 2014 explica que en la propuesta se ha tenido en cuenta la situación actual de la economía y los sucesivos incrementos sufridos en los últimos años. En base a ello se propone que con carácter general no se modifiquen los impuestos y tasas, con las siguientes especificaciones.

El alcalde comenta que la propuesta presentada contempla únicamente la modificación del epígrafe 5 de la Ordenanza Reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas, correspondiente al cementerio municipal y servicios funerarios, una vez estudiado con el operario encargado del cementerio.



Ajangizko Udala



Horrez gain, alkatetzak, ordenantza berri baten onarpena proposatzen du, Hirilurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga araupetzen duen udal ordenantza fiskala.

Proposatutako ordenantzak 100%eko hobaria onartzen du lehenengo etxebizitza kasuetan. Bestetik, babezpeko etxebizitzak libre geratzen direnerako espekulazioa ekiditzeko modu bat da, edota diru publikoaz eraikitako etxebizitzak kasuetan udalak zerbait berreskuratzeko era bat.

Beñat Onaindia zinegotziak, Ondasun Higizien Zergarengain onartuta dagoen familia ugarietarako diru laguntza errebisatu egin beharko litzatekela aipatzen du. Semelaba kopurua bakarrik kontutan eduki beharrean, familiaren ondasun eta irabaziak ere kontutan hartu beharko liratekela. Ez omen da berdina 100.000 euro irabazten duen familia ugaria duen familia edo 30.000 euro irabazten dituen. Hurrengo urterako puntu hau aztertzea proposatzen du.

Ismael Oar Arteta jaunak, proposamen hau ondo ikusten duela aipatzen du.

Alkatetzak aurkeztutako proposamena botaziora aurkeztuta bertaratutako zinegotziek aho batez honakoa onartu dute:

Lehenengo.- Ondoko Ordenantzen onarpen edo aldaketaren behin behineko onarpena:

- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea. 5. Epigrafea: Hilerria eta hileta zerbitzuak.

- Hiri lurraren gainbalioari buruzko zerga.

Bigarren.- Behin behineko onarpena jendaurrera zabaltzea, iragarkia Bizkaiko

Además el alcalde propone la aprobación de una nueva ordenanza: la Ordenanza fiscal municipal reguladora del impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana.

La ordenanza propuesta prevé una bonificación del 100% para las viviendas habituales. Por otra parte, es una medida para evitar en algún grado la especulación y recuperar parte de lo invertido en las viviendas tasadas en el momento en que queden libres.

El edil D. Beñat Onaindia comenta que convendría revisar las ayudas que se conceden a familias numerosas con relación al Impuesto de Bienes de Naturaleza Urbana. Comenta que no es equiparable una familia numerosa con 100.000 euros de ganancia u otra con 30.000. Señala que no se debería tener únicamente en cuenta el número de hijos, sino que se debería regular el nivel de ingresos de la familia. Propone que este punto quede pendiente de estudio para el próximo año.

D. Ismael Oar Arteta señala que está de acuerdo con esta propuesta.

Presentada a votación la propuesta presentada por el Alcalde, por unanimidad de los asistentes queda aprobado el siguiente acuerdo:

Primero.- La aprobación o modificación de las Ordenanzas que se relacionan a continuación:

- Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas. Epígrafe 5: Cemetnerio y servicios funerarios.

- Impuesto sobre incremento del valor de terrenos de naturaleza urbana

Segundo.- Publicar el presente acuerdo a fin de que de conformidad con lo previsto en el



Ajangizko Udala



Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar eguneko epean interesdunek agiriak azter ditzaten eta izanez gero, dagozkion erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten, Toki Araudiaren Oinarriak arautzen dituen 7/1989 Legeak, bere 49. Artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen 5/1989 Foru Araudiak, 16. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarren.- Jendaurreko epean elegiterik aurkeztuko ez balitz, behin behineko akordioa behin betiko bilakatuko da.

5.- URRETXA INGURUKO HERRI BIDEEN ETA BASERRIETARAKO SARREREN EGOKITZAPENERAKO PROIEKTUAK AFEKTATZEN DITUEN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA BEHIN BETIKO ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Urretxa inguruko herri bideen eta baserrietarako sarrerren egokitze proiektua ikusita.

Ondasun eta eskubideen hasierako onarpena interesdunei pertsonalki jakinerazi eta Udaletxeko iragarki oholean, 2014ko azaroaren 5eko 212 Bizkaiko Aldizkarian eta 2014ko azaroaren 7ko "EL Correo" egunkarian argitaratu dela ikusita, eta informazio publikorako epean ez dela alegaziorik aurkeztu.

Eraikuntza proiektuak afektatutako ondasun eta eskubideen erlazioa jasotzen duela kontutan hartuta, behin betiko onarpenak lanen erabilera publikoko aldarrikapena eta behin behineko okupazioak eta desjabetzapenak afektatutako ondasun eta eskubideen okupazio beharra dakar.

Exekuzio lanekin aurrera egiteko dagoen beharrez kontutan hartuta, desjabetzapena urjentziaz tramitatzea bidezkoa da.

artículo 49 de la Ley 7/1989, Reguladora de Bases de Régimen Local y artículo 16 de la Norma Foral 5/1989 de Haciendas Locales, en el plazo de treinta días a contar desde el siguiente al de la publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones y sugerencias que estimen pertinentes.

Tercero.- Transcurrido el plazo de exposición pública sin haberse presentado reclamación alguna, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo provisional anteriormente señalado.

5.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA RELACION DEFINITIVA DE BIENES Y DERECHOS AFECTADOS POR EL PROYECTO DE ACONDICIONAMIENTO DEL CAMINO DEL ENTORNO DE URRETXA Y ACCESO A CASERIOS.-

Visto el proyecto de acondicionamiento del camino del entorno de Urretxa y acceso a caseríos.

Visto que la aprobación inicial de la relación de bienes y derechos se ha procurado notificar personalmente a los interesados y se ha publicado en el Tablón de Anuncios, en el Boletín Oficial de Bizkaia nº212 de 5 de noviembre de 2014 y en el diario "El Correo" de 7 de noviembre de 2014, y que en el plazo de información pública no se ha presentado alegación alguna.

Resultando que el proyecto constructivo incluye la correspondiente relación de bienes y derechos afectados, por lo que su aprobación definitiva conlleva la declaración de utilidad pública de las obras y la necesidad de ocupación de los bienes y derechos afectados por la ocupación temporal y la expropiación.

Que dada la urgencia de proceder a las obras de ejecución, procede tramitar la expropiación por la vía de urgencia.



Ajangizko Udala



Toki Erregimeneko arauak jasotzen dituen apirilaren 18ko 781/1986 legegintzako errege-dekretu bidez onartutako Testu Bateratuak 88 eta hurrengo artikuluetan, eta bereziki 94. artikuluan jasotakoa kontutan hartuta.

Nahitaezko desjabetzaren Legeko 2, 3, 4, 5, 9, 10, 15, 16, 17, 18, 19, 85 eta hurrengo artikuluek araututakoa kontutan hartuta.

Idazkariak ondoren transkribatzen den Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 28 artikulua araututakoaren berri ematen du:

Artículo 28. Abstención.

1. *Las autoridades y el personal al servicio de las Administraciones en quienes se den algunas de las circunstancias señaladas en el número siguiente de este artículo se abstendrán de intervenir en el procedimiento (...).*
2. *Son motivos de abstención los siguientes:*
 - b) *Tener parentesco de consanguinidad dentro del cuarto grado o de afinidad dentro del segundo, con cualquiera de los interesados (...).*

Adierazitakoa kontutan hartuta, Ismael Oar Arteta jaunak gai honetan parte hartzeari uko egiten dio.

Afekatutako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda botaziora aurkeztuta, honako emaitza jaso du:

- Aldeko botuak: lau (4) BILDU taldeko zinegotziena
- Kontrako botuak: ez daude
- Abstentzioak: bat (1) EAJ/PNV taldeko zinegotziarena

Jasotako emaitza ikusita, alkatetzak honako akordioa onartutzat aldarrikatzen du:

Lehenengo.- Urretxa inguruko herri bideen eta baserrietarako sarrerak egokitzeko lanen exekuziorako beharrezko diren ondoren zerrendatzen diren ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onartzea:

Afektatutako ondasun eta eskubideen

Considerando lo dispuesto por los artículos 88 y siguientes, en especial el 94 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de Disposiciones en Materia de Régimen Local.

Considerando lo dispuesto en los artículos 2 al 5, 9, 10, 15, 16, 17, 18, 19, 85 y siguientes del la Ley de Expropiación Forzosa.

La Secretaria da cuenta del artículo 28 de la Ley 30/1992, e 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraziones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común que a continuación transcribe:

A tenor de lo expuesto el edil D. Ismael Oar Arteta se abstiene de participar.

Presentada a votación la relación definitiva de bienes y derechos afectados, el resultado obtenido es:

- Votos a favor: cuatro (4) de los ediles de BILDU
- Votos en contra: no hay
- Abstenciones: una (1) del edil de EAJ/PNV

Visto el resultado el Alcalde Presidente declara aprobado el siguiente acuerdo:

Primero.- Aprobar definitivamente la relación de bienes y derechos necesarios para la ejecución del Acondicionamiento del camino del entorno de Urretxa y acceso a caseríos que a continuación se relacionan:

Relación de bienes y derechos afectados:



Ajangizko Udala



zerrenda:

A) Partzela 1

Erregistroko inskripzioa:

Gernika-Lumoko Jabetza Errolda

- Liburua: 4
- Liburukia: 703
- Finka: Ajangizko 243
- Titularra: Maria Oar Arteta Undabeitia
- Derrigorrezko desjabetzapena: 72 m²

B) Partzela 2

Erregistroko inskripzioa:

Gernika-Lumoko Jabetza Errolda

- Liburua: 4
- Liburukia: 703
- Finka: Ajangizko 182
- Titularra: Jesus Oar Arteta Undabeitia
- Derrigorrezko desjabetzapena: 133 m²

C) Partzela 1

Erregistroko inskripzioa:

Gernika-Lumoko Jabetza Errolda

- Liburua: 4
- Liburukia: 703
- Finka: 243
- Eskubide errealaren titularra: Caja Laboral Popularren aldeko hipoteka.
- Derrigorrezko desjabetzapena: 72 m²

Bigarren.- Aurretik deskribatutako ondasun eta eskubideak urjentziaz okupatu beharra aldarrikatzea, beraien kokapenak duen interes publikoa kontutan hartuta, 2/2006 Legeko 178 artikulua araututakoarekin bat.

Hirugarren.- Akordio hau egunkarian, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki oholean argitaratzea eta interesdunei pertsonalki jakineraztea, Derrigorrezko Desjabetzapeneko 17.2 eta 19.2 artikuluek araututakoaren arabera.

Laugarren.- Proiektuaren exekuziorako beharrezko diren afektatutako lursailen desjabetzapenerako balio justua zehazteko

A) Parcela 1

Inscripción registral:

Registro de la Propiedad de Gernika-Lumo

- Libro: 4
- Tomo: 703
- Finca: 243 de Ajangiz
- Titular: Maria Oar Arteta Undabeitia
- Expropiación forzosa: 72 m²

B) Parcela 2

Inscripción registral:

Registro de la Propiedad de Gernika-Lumo

- Libro: 4
- Tomo: 703
- Finca: 182 de Ajangiz
- Titular: Jesus Oar Arteta Undabeitia
- Expropiación forzosa: 133 m²

C) Parcela 1

Inscripción registral:

Registro de la Propiedad de Gernika-Lumo

- Libro: 4
- Tomo: 703
- Finca: 243 de Ajangiz
- Titular de derecho real: Hipoteca a favor de la Caja Laboral Popular
- Expropiación forzosa: 72 m²

Segundo.- Declarar la necesidad de urgente ocupación de bienes y derechos afectados anteriormente descritos, dado el interés público de su ubicación, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 178 de la Ley 2/2006.

Tercero.- Publicar el presente acuerdo mediante anuncios a insertar en la prensa, Boletín Oficial de Bizkaia, tablón de anuncios del Ayuntamiento y notificación personal a los interesados, a los efectos previstos en los artículos 17.2 y 19.2 de la Ley de Expropiación Forzosa.

Cuarto.- Iniciar las actuaciones necesarias para la determinación del justiprecio relativa a la expropiación de las fincas afectadas,



Ajangizko Udala



jarduerak hastea.

Bosgarren.- Akordio honen exkuziorako beharrezko diren ebazpenetarako alkate udalburua gaitzea eta orokorrean honako desjabetzapen espedientearen ondoriozko diren gainontzeko ebazpenetarako, balio justuaren espedientearen exekuzioa eta adiskidetasunezko eskuraketarakoak barne, udal interesentzako hobeto den eran.

6.- URRETXA INGURUKO HERRI BIDEEN ETA BASERRIETARAKO SARREREN EGOKITZAPENERAKO LANEN LEHENENGO ZIURTAGIRIAREN ETA HORRI LOTUTAKO FAKTURAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2014ko abuztuaren 28an ospatutako osoko bilkuran, Urretxa inguruko herri bideen eta baserrietarako sarrerren egokitzapenerako lanak CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A. enpresari esleitu zitzaizkion, 190.987,93 euroko prezioan (gehi 40.107,46 € BEZ).

Lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate jaunak, lanen 1. Ziurtagiria aurkeztu du, 28.050,17 euroko kostuarekin.

Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 28.050,17 euroko kostu orokorrearekin aurkeztutako 2014ko urriaren 31ko 2014/159 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

Lehenengo.- Urretxa inguruko herri bideen eta baserrietarako sarrerren egokitzapenerako lanen 1. Ziurtagiria onartzea, 28.050,17 euroko kostu orokorrearekin.

Bigarren.- Construcciones Intxausti S.A.

necesarias para la ejecución del Proyecto.

Quinto.- Facultar al alcalde para dictar cuantas resoluciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo y en general las que deriven del presente expediente expropiatorio, incluidos la ejecución del expediente de justiprecio y los acuerdos previstos de adquisición amistosa en la forma que mejor convenga a los intereses municipales.

6.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA 1ª CERTIFICACION DE LAS OBRAS DE ACONDICIONAMIENTO DEL CAMINO DEL ENTORNO DE URRETXA Y ACCESO A CASERIOS.-

El Ayuntamiento de Ajangiz, por acuerdo del pleno adoptado en sesión de 28 de agosto de 2014, adjudicó las obras de mejora del camino del entorno del caserío Urretxa y acceso a caseríos a CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A. por un precio de 190.987,93 €, más 40.107,46 €, correspondientes al IVA.

El Director de Obra D. Carlos Ortiz de Zarate ha presentado la 1ª certificación por importe de 28.050,17 euros.

A la certificación se acompaña la factura 2014/159 de 31 de octubre por importe de 28.050,17 euros presentada por Construcciones Intxausti S.A.

Atendiendo a la documentación presentada, el Pleno de la Corporación por unanimidad de los asistentes, acuerda:

Primero.- Aprobar la 1ª certificación de las obras mejora del camino del entorno del caserío Urretxa y acceso a caseríos por un importe total de 28.050,17 euros.

Segundo.- Aprobar la factura 2014/159 de



Ajangizko Udala



enpresak aurkeztutako 28.050,17 euroko kopuru orokorra duen 2014ko urriaren 31ko 2014/159 faktura onartzea.

Hirugarren.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daditezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

7.- ABENDUAK 3, EUSKERAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA, UDALAREN ADIERAZPENA ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak, abenduaren 3an ospatzen den Euskararen nazioarteko eguna dela eta, udalari ondoren transkribatzen den adierazpen proposamena aurkeztu dio, udalerrian zehar bandoetan jarri daiten.

31 de octubre por un importe total de 28.050,17 euros presentada por Construcciones Intxausti S.A.

Tercero.- Dar cuenta del presente acuerdo al interesado para su conocimiento y efectos oportunos.

7.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA DECLARACION DEL AYUNTAMIENTO CON MOTIVO DEL DIA INTERNACIONAL DEL EUSKARA QUE SE CELEBRA EL DIA 3 DE DICIEMBRE.-

Con motivo de la celebración del día internacional del Euskara el próximo 3 de diciembre, el Alcalde propone la aprobación de una declaración que se transcribe a continuación y su exposición al pueblo mediante bandos.

Dagoeneko ate-joka dugu abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Eguna. Kontuan hartuta euskararik gabeko Euskal Herririk ezin izan daitekeela, ospakizun-eguna izateaz gain aldarrikapen-egun bilakatu eta aurtengoan edukiz eta formaz beteta, 365 egunez luzatu nahi dugu. Hori horrela, ondorengo

JAKINARAZTEN DUGU

Lehenengoa.- Abenduaren 3tik abenduaren 10era arte (**Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna**) gure Udaletxean "Euskaraz bizi nahi dugu" dioen pankarta koloretsua jarri eta mantenduko dugu.

Bigarrena.- Dei egiten diegu udalerriri honetako bizilagun euskaldun guztiei beraien elkarte, enpresa edo bestelako entitatean webgunea baldin badu, euskaraz jarri edota aritu eta izena eman dezaten ".eus" domeinua eskuratu ahal izateko (<http://www.domeinuak.eus/eu/>), euskaldun guztion artean ikusgarri eta elkar ezagutzeko gai izan gaitezten, gure hizkuntza komunitatea munduaren aurrean ager dadin.

Hirugarrena.- Herritarroei gogorarazi nahi dizuegu, edozein hizkuntza eskubide urratua sumatzen duzuenean, eskuragarri duzuela www.behatokia.org zein <http://www.euskara.euskadi.net/r59-aleb/eu/> web orrietan kexa jartzeko bidea. Behatokia elkarteak zein Elebide zerbitzuak garatzen dituzte kexei dagozkien jakinarazpen eta gestioak.

Ajangizko Udala, 2014ko azaroa.



Ajangizko Udala



Beñat Onaindia jaunak, adierazpena onartu eta bandoetan jartzeaz gain, herriko enpresari gutun bat bidaltzea proposatzen du.

Bertaratutako ziengotziek aho batez onartu dute adierazpena, baita Onaindia jaunaren proposamena ere.

8.- ERREGU ETA GALDERAK.-

• Alkate jaunak Estatuko abokatuak 2014ko aurrekontuaren kontra errekurtsioa aurkeztu duela azaltzen du, bertan agertzen den Udalbiltza partida dela eta. Udalbiltzari ere enplazatu zaio epaian salatu bezala pertsonatzeko udaletxearekin batera, eta pertsonatuko dela aipatu du. Oraingoz espedientea bidali zaio Auzitegiari eta demandaren zain dago auzia.

• Mikel Ander Zubiarreta jaunak, Kanpantxuko eskolan 2014ko azaroaren 23an ospatutako batzarrean bertaratutako batek eskutitza jaso ez zuela aipatzen du, inork badaki nor izan zen?

Ismael Oar Arteta jaunak Agustin Larrinaga izan zela aipatzen du.

Alkateak, Jose Agustín Larrinagak gutuna gutun zertifikatu bidez 2014ko azaroaren 14an jaso zuela azaltzen du, bere izen, abizen, DNI eta sinadurarekin, eta horren kopia aurkezten du osoko bilkuran. Dokumentu hori aktan sartu daitela eskatzen du.

Bestalde, batzar hartan esandakoaren haritik, 2013ko urriaren 30ean ospatutako osoko bilkuran, ohiko bilkura guztietan egiten denez, alkatetzak emandako dekretuen berri eman zen. Batzar horretan alkateaz gain Aiora Berrojalbiz, Beñat Madariaga eta Jesus Mari Ajuria ziengotziak egon ziren, eta dekretu bati buruz baino ez zen galdera egin. Aktan bertan azaltzen denez:

Jesus Mari Ajuria zinegotzi jaunak, Kanpantxuko eskolari buruz aipatutako dekretua zer den galdetzen du.

Alkateak, Kanpantxuko eraikuntzaren egoera jakin gurean dabilea Udala azaltzen du. Jabetza udalarena ez dela jakinda ere, zein egoeratan dagoen aztertu eta udalak bertan zerbait egiteko aukerak aztertzea dela asmoa. Horretarako lehenengo ideia modura, nekazaritzat produktuen elaboraziorako gune bat jartzea proposatu da, eta dekretu bidez ideia hori lantzeko agindua egin zaio ingeneri agrónomo bati. Hala ere, lehenengo jabeak nortzuk diren ikusi beharko da, eta udalaren asmoa beraiekin batzar bat egin eta eraikuntzari eman diezaikegun erabilera aztertzea da, besteak beste nekazal produktuen elaboraziorako gunea. Hala ere Udala izan daitetzkeen ideien zain dago, eraikuntzaren zesioaren truke herriari zerbait eskaintzeko.

Jesus Mari Ajuria jaunak, eskolako jabeekin egindako azken batzarra berak antolatu zuela azaltzen du, eta badaukala orduan egindako zerrenda bat. Zerrenda hori udaletxera ekarriko omen du, eskolan parte hartu zutenak ez bait dira kasu guztietan baserrietako jabeak errentadoreak baizik, gero trukeak ere egon omen ziren... Egindako batzar haren helburua ere zesioa udalari ematea izan zen baina azkenean dena bertan behera geratu zen.

Argi azaltzen da beraz, nekazal produktuena ideia bat baino ez zela izan. Aurreproiektua proposamen bat besterik ez zen, ez du esan nahi hori burutuko denik. Akta hori 2013ko abenduaren 16an ratifikatu zen. Kanpantxuko eskolan egindako batzarrean Ismael Oar Artetak, alkate guzurti bat dela, iskutuan dabilela... esan zion, eta orain aipatutako dokumentu guzti horiek Ismaelen ordenadorean egon behar direla adierazten du alkate jaunak, idazkariak bidalita, bai 2013ko urriaren

El edil D. Beñat Onaindia propone que además de aprobar la declaración y exponerla en los bandos, se remita una carta a las empresas del municipio.

Los concejales presentes aprueban por unanimidad la declaración y la propuesta presentada por el Sr. Onaindia.

8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-



Ajangizko Udala



30eko plenorako deialdian, baita 2013ko abenduaren 16ko plenoko deialdian, aurreko aktaren ratifikaziorako bidalitako dokumentazioan.

Hau dena ikusita, Ismaelen hitza entzun nahiko lukeela adierazten du Alkateak, ikusita besteak beste Larrinagak, berak esandakoaren kontra gutuna jaso zuela.

Ismael Oar Arteta jaunak hitza hartuta, parkamenik eskatu behar ez duenik esaten du. Informazio hori buzoian jaso zuela aipatzen du, plenoko akta, dekreto guztiekin eta bat azpimarratuta, konkretuki Kanpantxuko eskolari buruzko dekretua.

Alkateak, egindako lehenengo batzarrean, udalak inolako proposamenik ez duela esan zuela azaltzen du eta jendeak aurkeztu ditzakeen proposamenen zain dagoela.

Udal abokatuak, inmatrikulazioa posible zela aipatu zuela gehitzen du, baina udalak ez duela hori nahi, zintzotasunez jokatzeko.

Baina dekretu hori ikusita, udalak asmoren bat bazuela ikusi da Oar-Artetaren esanetan.

Mikel Ander Zubizarreta jaunak, lehenengo batzarrean idea asko izan daitezkeela esan zuela aipatzen du, haurreskola bat, nagusientzako toki bat... eta ideien konkurtso bat egin beharko litzatekela. Aurreproiektu hori lehen ideia modura hartu zela azaltzen du, eraikuntzaren egoera ikusi ahal izateko eta eraikuntza horretan proiektu bat egiteak zenbat kostatu ahal izango lukeen jakiteko. Aurreproiektu horretan jasotako balorazioak beste proiektu batzuen baloraziorako oinarri bezala hartu daitezkeela, eta horrekin gutxi gora beherako kopuru batzuk zehaztu.

Hori zehaztuta, aurreproiektu honetan jasotakoa ideia bat baino ez dela azaltzen du eta udala egon daitezkeen beste ideia guztiei zabalik dagoela. Herriak nahi ez duen ezer ez dela jarriko azaltzen du alkateak, jasotako ideia guztiekin, prozesu partehartzaile baten bidez erabakizko zela zer egin. Hori izan da momentu oro udalaren postura.

Aurreproiektuari esker, udalak eraikuntza berriztatzeko kostua zein den badaki, eta edozer egin ahal izateko beharrezko inbertsioa posible izango litzatekela udalaren aldetik. Udalak ez du nahi eraikuntza eskuratu gero bertan egin beharreko inbertsioari aurre egin ezin badio. Horretarako eskatu zen aurreproiektua.

Ismael Oar Arteta jaunak aurreproiektua zenbat kostatu den galdetzen du.

Alkateak une honetan buruz ez dakiela erantzuten du, baina esango zaiola. Nahi izanez gero aurreproiektuaren kopia ere emango zaiola gehitzen dio, udalak ez duelako ezer eskutatzen.

Oar Arteta jaunak datu guztiak eskatzen dizkio. Aurreproiektu bat egin bada inork interesgarria dela uste duelako izango dela aipatzen du, baina eskola jabe batzuen dela dio eta jabe horiek ez zekitelako ezer proiektu honi buruz.

Beste alde batetik, etxe sozialetako bat libre geratuko dela eta, udaletxeak duen etxebizitza sozialen epaia kontutan hartzea proposatzen du. Libre geratzen den etxebizitza epaia irabazi zutenei eskaintzea proposatzen du, horrekin udala betebeharretatik libre utzita. Bere proposamena dela komentatzen du eta aztertu daitela.

Bukatzeko Oar Arteta jaunak, desjabetzapenarekin, eskolarekin gertatu dena inoiz ez dela gertatu komentatzen du.

Alkateak, eskolarekin lehenago ere saiakerak izan zirela aipatzen du, eta bertan behera geratu zirela. Eta desjabetzapenak ere aurretik egon direla, Ismael Oar Arteta zinegotzi dela, baina ez baden enteratzen edo ez baduen lan egiten ez dela alkatearen errua, Ismaelena baizik, eta berriz irakurtzen



Ajangizko Udala



du:

Jesus Mari Ajuria jaunak, eskolako jabeekin egindako azken batzarra berak antolatu zuela azaltzen du, eta badaukala orduan egindako zerrenda bat. (...)Egindako batzar haren helburua ere zesioa udalari ematea izan zen baina azkenean dena bertan behera geratu zen.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da arratsaldeko zazpiak eta erdietan, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua

BITARTEKO IDAZKARIA

Saioa Pineda Aranburu